




«Oso gustuko ditut sagardoa eta sagardotegietan sortzen den giroa»

San Sebastian aurreko ostiralean zabaldu ohi dute sagardotegi gehienek txotx denboraldia. Hala ere, denboraldia zabalteko ekitaldi ofiziala egingo da gaur Astigarragan (Gipuzkoa). Nahiz eta sagardotegiak ostiralean zabaldu, hau izan ohi da txotx denboraldiaren abiapuntua. Ekitaldia Astigarragako sagardogileek antolatzen dute, eta bertan Euskal Herriko pertsona ezagun batak denboraldiko lehen sagardo basoa edateko aukera du. Aurtengoa, euskal txirrindularitzak

eman duen txirrindularirik handienetako batek izango du horretarako ohorea: Abraham Olano. Anoetako txirrindulariak Espainiako Itzuli bat irabazi zuen, eta baita Munduko Txapelketa bat. Horrez gain, Italiako Giroko podiumean ere izan da. Gaurko ekitaldiarekin, sagardogileek Olano omendu nahi dute, bere kirol ibilbide oparoa dela eta. Ondoren, guztiek Bereziartua sagardotegian egingo dute bazkaria, sagardo onaz bustita noski. EGUNKARIK OLANO

norekin berarekin hitz egin du sagardoaren inguruan eta gaur izango den ekitaldiaz.

• **Noliz proposatu zizuten aurtengo txotx denboraldia zabalteaz?**

Egia esan, ez da horrelako proposamen bat egin didaten lehen aldia. Sagardozaleek bazekiten sagardoa gustuko nuela, eta duela hiru bat urte ere proposatu zidaten txotx denboraldia zabalteaz. Tamalez, ezin izan nintzen bertan egon. Izan ere, taldearekin kontzentratuta nengoen,

hastear zegoen denboraldia prestatzen. Aurtengoa berriro ere proposamena egin zidaten, eta, jadanik goi mailako kirola utzi dudanez, proposatu bezain laster baietz esan nien.

• **Kirolari handi ugari izan dute azken urteetan denboraldia zabalteko aukera. Polita izango da sagardogileek zu hautatu eta txotx denboraldia abian jartzeko aukerakizatea.**

Bai, proposamena jasoteak ilusio handia egin zidan. Sagardoa oso gustuko izan dut beti-

danik, eta baita sagardotegietan sortzen den lagun giroa ere. Beraz, niretzat, oso polita da horrelako ekitaldi batean parte hartzeko aukera izan eta txotx denboraldia zabalteaz.

• **Sagardoa edateko gustuko duzu, berez?**

Emazterei eta biורי asko gustatzen zaigu noizean behin sagardoa edatea. Normalean, etxean hartu izan dut. Izan ere, lasterketak zirela eta, denbora asko ematen nuen etxetik kanpo. Beraz, sagardo denboraldian ezin



Abraham Olano txirrindulari ohia, Mikel eta Xabier semeekin Tolosan.

izaten nintzen sagardotegietara joan. Hala ere, etxera etortzean oso atsegin nuen emaztearekin batera sagardo botila bat edatea.

• **Aurtengoa, goi mailako kirola utzita, aukera izango duzu txotx denboraldian sagardotegietara joateko.**

Ziur baietz. Esan bezala, oso gustuko ditut sagardoa eta bertan sortzen den giroa. Menuaren aldetik ere ez dut arazorik; piperrak, bakailao tortilla, txuleta eta bakailaoa oso atsegin ditut. Orain arte kanpoan nengoelako ezin izaten nintzen sagardotegietara joan. Aurtengoa, etxean izango naizenez, txotx denboraldian sagardotegira joango naiz.

• **Once-Eroski taldean euskaldun ugari zirela (Beloki, Alvaro Gonzalez de Galdeano, Igor Gonzalez de Galdeano...). Lasterketetan zirenean, sagardoa edateko ohitura izaten al zenuten bazkarian edo ofarian?**

«Taldekako txirrindulari atzerriarrei ere gustatzen zitzaizkien sagardoa. Askotan kaxaren bat enkargatzen ziguten txirrindulari edo taldekako beste kideei»

Egia da taldean euskaldun asko geundela, baina normalean ez genuen sagardoa edateko ohiturarik. Bazkaltzeko garaian, ia beti lasterketan izaten ginen. Afaltzeko garaian, aldiz, ura edo ardoa edaten genuen. Baso bat ardo edateko ohitura handiagoa genuen sagardoa edateko baino.

• **Afaltzeko geroan baso bat ar-**

do edateko ohitura zenuten. Zuk zer duzu gustukoena, sagardoa edateko?

Egoeraren eta aurrean duzun janariaren arabera dago hori. Batzuetan nahilago izaten dut sagardoa edan, baina bestetan ardoa. Egia da, hala ere, askotan askoz hobeto sartzen zaidala sagardoa.


• **Tony Rominger, Alex Zulia, Laurent Jalabert taldekide izan dituzu. Taldekako txirrindulari atzerriarrei, sagardora Euskel Herrian dagoen zaletasuna erakutsi al zeniaten?**

Bai, erakutsi genien, eta gehienek asko gustatzen zitzaizkien. Sarritan, hona lasterketaren bat korritzera etortzen zirenean, sagardo kaxaren bat enkargatzen ziguten hemengo txirrindulari edo taldekako beste kideei. Ondoren, beren herrialdeetara eramaten zituzten, sende eta lagunei probatzen emateko. Beraz, haiek ere gustuko zuten hemengo sagardoa.



Olatume bidea - Tel.: 943 33 33 33 - 20115 ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)

SAGARDOAN JAKITUNA BAZARA ALDEA NABARITUKO DUZU



Sagardo Natural Orekanua, lasto kolore eta fruitu zaporezkoa, edozein jakirentzat egokia.

**GURUTZETA
TOLARE-SAGARDOTEGIA,
BERRIKUNTZA ETA TRADIZIOA
SAGARDO NATUREALEAN**

Gurutzeta Sagardotegian eginga, Olatume Bidea, Astigarraga, Gipuzkoa.
Tel.: 943 55 22 42 - Fax.: 943 31 10 01

**Sagardotegi
IRVINAZARRA
BAR-RESTAURANTE**

Erreserbak: 948 22 51 67

Mercaderes, 15 IRUÑA

LIZEAGA
Astigarraga

**Eska ezazu Sagardoa!
eta etiketan LIZEAGA
jarriko balu azkoz hobe.**

**EDAN ETA EMAN
EDATERA**